

Informazio-txostena

Harrerako osaba-izeba

izateko informazioa,
baliabideak eta
jarraibideak



izebaproiektua Gipuzkoa

Tutoretzapean dauden
pertsona adingabeentzat
harrerako osaba-izeba
izatea erabaki duten
familia boluntarioen sarea
haien bizi kalitatea
hobetzeko

943-251005/688644354

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gizarte Politikako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales

baketik

Sarrera

Tutoretzapean dauden pertsona adingabeen osaba/izebak izateko eta haien bizi kalitatea hobetzen laguntzeko prest dauden pertsona- edo familia-sarea da Izeba Proiektua. Erreferentzia- eta laguntza-familia horien eginkizuna hau da: ikasketak direla-eta, adibidez, gurasoengandik urruti bizi den iloba batengandik hurbil bizi den osaba/izeba batenaren antzekoa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuak eta Baketik Fundazioak elkarrekin izenpetutako hitzarmenak abiarazten eta garatzen du ekimen hau.

Adar ugari ditu Izeba Proiektuaren enborrak: Gipuzkoako Foru Aldundia, proiektuari laguntzen dioten zenbait udal, herritarrak (harrerako familien bitartez), gizarte zibil antolatua (Baketik eta ekimena sustatzen duten beste zenbait erakunderen bitartez)... Helburu bakarra du ekimen kolektibo eta koordinatu honek: tutoretzapean dauden pertsona adingabeen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko erantzun solidarioa eta eraginkorra ematea.

Lehenik eta behin, elkartasun-proiektu bat da. Baketik-en gabiltzanok uste sendoa dugu ezinbestekoa dela elkartasuna hobeto bizitzeko, elkarbizitzeko eta hezteko. Bizitza ezin da osatu altruismoaren esperientziarik gabe. Eta elkartasun-bizipen horretan murgiltzeko, irizpide egokia da etengabe galdetzea geure buruari nor diren gizarteko azkenak, geure inguruan gehien sufritzen dutenak, eta inon diren ahaleginak egitea azkenak ataka horretatik ateratzeko. Irizpide egokia ez ezik, gizalegezko eta justiziako eginkizuna ere bada hori. Hausnarketa horiek abiapuntu harturik jarri gara erakunde baten tutoretzapean dauden pertsona adingabeei begira. Ez dakigu, zehazki, gizarteko azkenak diren, baina burua asko nekatu gabe esan daiteke adin horretako neska-mutikoen sufrimenduak inon den gogorrenetakoa eta astunenetakoa behar duela izan.

Baina sufrimendu hori ez da beti agerikoa eta bistakoa izaten. pertsona adingabe atzeritarren kasuan adibidez, komunikabideen informazioek —aurreiritziz, esterotipoz eta sentsazionalismo populistaz hornituak, maiz— neska-mutil horiek zer egiten duten esaten digute, non bizi diren, zenbat diren, edo bere inguruan zenbat istilu, kezka eta gorabehera sortzen duten. Sarritan, informazio horien bidez neska-mutil horiei buruz den-dena dakigula iruditzen zaigu, eta epaitzeko eta etiketa kolektiboak jartzeko gai ere sentitu ohi gara.

Baina, egiazki, ezer ez dakigu —edo ezer gutxi— pertsona adingabe tutelatu bakoitzaren historiaz, bizipen eta sufrimendu pertsonalaz; ez dakigu zer dela eta beraien familiarik kanpo dauden. Haien egoera apur bat bederen irudikatzeko, pentsa dezagun 14, 13, 12 edo txikiagoa den geure seme-alaba batek etxetik eta zenbait kasutan, sorterritik alde egin behar izan duela, eta bizimodu berri bat hasi ingurune desberdin eta ezezagun batean.

Testuinguru horretan galdetu behar diogu geure buruari zer gehiago egin behar dugun, orokorrean pertsona adingabe horien bizi kalitatea hobetzen laguntzeko. Eta galdera horrek abiarazi du, Izeba Proiektua eta, horren ondorioz, Baketik-en eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena. Eta ikuspegi berari jarraiki, familia askok eman dute izena, beren borondatez eta elkartasun asmoz, proiektu honetan parte hartzeko.

Elkartasun-proiektua da, izan ere, baina, aldi berean, eraginkortasunez jardun nahi du pertsona adingabe horien garapenean. Izeba Proiektuak uste hau du sorburu: harrerako osaba-izebak lagungarri izan dakizkieke pertsona adingabeei, familia-erreferentziak eskaintzen baitizkie (beren buruari eusten ikastea, afektibitatea, hurbileko harreman sozialak, laguntza...). Baina ustea ez zaigu aski: helburu hori lortzeko baliabideak ere ipini beharra daukagu.

Norabide horretan urrats bat egitea du xede agiri honek: Izeba Proiektuari eta horren ardatz nagusiei buruzko oinarritzko informazioa ematen du, eta, beren lana ahalik eta hobekien egin dezaten, ekimen solidario honetarako familia boluntarioek dituzten baliabideak zerrendatzen eta deskribatzen ditu. Azkenik, iradokizun- edo arau-katalogo bat ere badu, pertsona adingabeen eta familia boluntarioen arteko harremanak bideratzeko.

1. Informazioa

Agiri honen lehen atalak Izeba Proiektuari buruzko oinarrizko informazioa ematen du, eta lau sail ditu: proiektuaren deskribapena, abiapuntuak, helburuak eta ardatz nagusiak.

1.1. Proiektuaren deskribapena

Tutoretzapean dauden adingabeentzako harrerako osaba-izeben sare bat (erreferentzia- edo laguntza-familiak) sortzea du helburu Izeba Proiektuak. Zertan gauzatuko den? Bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuaren zuzeneko laguntzarekin, borondatezko hainbat familiaren sareko laguntza eskuratzen saiatuko da, babesik gabe dauden neska-mutiko horien harrerako osaba-izeba edo laguntza-familia izan daitezen.

Hartara, bizi den harrera-lekuaz gain, erreferentziazko familia bat ere izango du gazte bakoitzak haren inguruan. Erakunde publikoen eta harrera-lekuen garapen-ahaleginaren osagarri izango dira, beraz, harrerako osaba-izeben familiak.

Lehendik ere azaldu dugunez, laguntza-familia horien eginkizuna hau da: arrazoi hau edo bestea dela-eta etxetik urruti dagoen iloba baten osaba/izeba izatea. Hirugarren atalean dituzue eginkizun horretarako ekinbide zehatzak, baina aipa ditzagun, labur bada ere: zenbait laguntza- eta presentzia-mota, maiztasun jakin batekin (astean behingo topaketak, telefono-deiak, ingurunearekin jarduteko zenbait laguntza eta bitartekaritza-bide...).

Gaur egun, bi aukera daude babesik gabeko adingabeei familia-laguntza emateko: adopzioa eta harrera. Izeba Proiektuarekin, beste aukera bat jartzeko oinarriak jarriko dira: laguntza-familiak edo harrerako osaba-izebak. Bereziki aproposa izan daiteke aukera hau tutoretzapean dauden adingabeei laguntzeko.

1.2. Abiapuntuak

Bi abiapuntu nagusi ditu proiektu honek: tutoretzapean dauden adingabeen egoeraren diagnostikoa, batetik, eta familiako harreraren esperientzia, batez ere harrera amaitu ondorengoa.

·**Diagnostikoa.** Izugarrizko ahalegina egiten dute erakunde publikoek tutoretzapean daude adingabeak artatzen eta laguntzen, baina arazoaren konplexutasuna ikusirik, hobetzen jarraitu beharra daukagu. Gaur egun, adingabe horiek badituzte harrera-lekua, monitoreak, laguntza-zerbitzuak, eguneroko segimendua... Kasurik gehien-gehienetan, oso ona da adingabeen erantzuna. Gizarte sare eskasa, gizarteratzea eta erlazio eta erreferentzia positiboen beharrean datza, baina, gabezia nagusiak. Normalean, beren antzeko egoeran dauden beste adingabe batzuk bakarrik izaten dituzte inguruan, ez dute hurbileko harremanik gizartearekin edo beren adineko bertako gazteekin; ez dute, bestalde, familia-erreferentziarik; batzuek, bestalde, ez diete behar adina eusten beren grina eta gurariei, eta, noiz edo noiz (gutxitan), gatazkak sortzen dira, edo inguruko herritarren arbuioa eta onespenik eza (kolektibo osoari hedatua) jasan behar izaten dute. Aski arrazoi dago, bada, egiten ari den gizarteratze-ahalegina eta garapen pertsonala sendotzen etaosatzen saiatzeko.

·**Familiako harrera.** 15 urtetik gora badira bide horri, harrerari, ekin zitzaiola, eta datu bat azpimarratu nahi genuke: harrera-familiak lana adingabe harrera-epea amaitu eta gero, dela bere familia biologikora itzuli delako, dela zentro batera joan delako, dela bere kabuz baliatzen hasi delako... Kasu batzuetan, harrera-familia laguntza-, erreferentzia- edo babes-familia bihurtu izan da, bere kabuz eta borondatez, aldi batean eurekin izan duten adingabe horrentzat. Hala, bada, osaba-izeba moduko bilakatzen dira. Horrelakoetan, hobeak izaten dira —normalean— emaitzak: babes gehiago, afektibitate gehiago, erreferentzia gehiago, aukera gehiago, bere buruarekiko kontrol gehiago, gizarteratzeko baliabide gehiago eta bere bizimodua konstruktiboki eratzeak aukera gehiago izaten ditu adingabeak. Esperientzia praktikoa hori du euskarri Izeba Proiektuak, ez uste edo aieru teoriko hutsak soilik.

1.3. Helburuak

Bi ataletan bildu ditugu Izeba Proiektuaren helburu nagusiak: batetik, zuzeneko eta berriarazko helburuak; bestetik, helburu osagarriak eta orokorrak.

·Zuzeneko eta berriarazko helburuak

-Bizimodu hobe bat izaten laguntzea pertsona adingabe tutelatuari, afektibitateko familia-erreferentziak sortuz eta, horien bitartez, harreman sozial berriak eskainiz adin txikiko hauen ingurunean bertan.

-Gaiaz arduratzen diren erakundeekin elkarlanean jarduteko familia-sare bat osatzea, erakunde baten tutoretzapean dauden pertsona adingabeen kasuetan harrera eta gizarteratzeak dakartzan zailtasunei eta arazoei erantzun etiko eta egokia ematearren.

·Helburu osagarriak eta orokorrak

-Elkartasun- eta konpromiso-kontzientzia sortzea gizartean arazo konplexu horrekiko, eta komunikabideak arduraz eta zorrotasunez jardutera bultzatzea.

-Pertsona adingabe horienganako jarrera gizatiarragoa sustatzea gizartea, horien egoerarekiko enpatia eta hurbiltasuna sustatuz eta elkartasun- eta kidetasun-kontzientzia hedatuz gizartean.

-Beldurrari, aurreiritziei eta etiketa kolektiboari indarra kentzen saiatzea, eta pertsona horiekiko giza sentsibiltatea sustatzea, geure seme-alabak izan litezkeela irudikatuz eta gogoratuz.

1.4. Izeba Proiektuaren eginkizun bat eta bi ardatz familia boluntarioarentzat

Egin dugun deskribapenaren ostean eta hainbat atal jorratu ondoren, komeni da atzera egin eta alderdi garrantzitsuenak azpimarratzea, ez galtzeko kontuan izan beharreko hori alegia. Horretarako, Izeba Proiektuak harrerako familientzat dituen eginkizuna eta bi ardatz nagusiak azpimarratuko ditugu.

Azken helburua da eginkizuna, proiektu honen bidez lortu nahi dugun ametsa edo asmoa. Aipatuko ditugun bi ardatzak ditugu eginkizunaren printzipio gidariak, eta bi norabidetan ageri zaizkigu: kanporantz eta barnerantz. Barnerako ardatzean kokatuko dugu pertsona adingabearen eta familiaren arteko bizikidetzan sortzen den harremana; kanporakoan, berriz, harrerako osaba-izebek pertsona adingabearen eta haren ingurunearen artean egin dezaketen bitartekaritza-lana.

·Eginkizuna: tutoretzapean dauden pertsona adingabeen bizimodua hobetzen laguntzea.

Proiektu honen xedea da tutoretzapean dauden pertsona adingabeen sufrimendua gutxitzen saiatzea; besteekin bizitzen, euren bizi-proiektu duina eta bideragarria eraikitzen... zoriontsu izaten laguntzea. Oinarrizko baldintza bera dute xede horiek guztiek: bizimodu hobe bat izaten lagundu behar zaie pertsona adingabeei. Bizimodua hobetzea dugu eginkizuna; afektibitatea eta harreman-sareak, berriz, garapen-gakoak.

·Lehen gakoa: barnerantz, afektibitatea

Afektibitatea da lehenbiziko gakoa tutoretzapean dauden pertsona adingabeen eta laguntza-familiaren arteko barneko bizikidetzan. Harreman afektiboa sortu, eskaini eta eman behar diote elkarri; konfiantza, segurtasuna, babesa eta autokontrola dakarren familia-giroko afektibitatea.

·Bigarren gakoa: kanporantz, harreman-sareak

Harrerako familiaren eginkizuna funtsezkoa da, kanpora begira, pertsona adingabearen eta haren ingurunearen arteko bitartekaritza-lanerako. Horregatik, harrerako osaba-izeben edo lehengusu-lehengusinen beste gakoa edo eginkizuna da pertsona adingabeen harremanak sustatzea, hurbileko adiskideak, interesak, zaletasunak eta gainerakoak eskainiz.

2. Baliabideak

Izeba Proiektuari laguntzeko borondatezko pertsona edo familia gisara izena ematen dutenak ez dira bakarrik izango elkartasun-ahalegin horretan, hamar baliabide hauek, gutxienik, izango baitituzte eskura:

1. Talde profesionalaren laguntza-zerbitzua, pertsona adingabearen harrera-zerbitzuarekin koordinatua eta harremanean familia bakoitzarekin, lanean lagundu, kontsultei erantzun edo zailtasunei aurre egiteko orientabideak emateko.
2. Laguntza-talde espezializatuaren bisitak. Prozesuaren hasieran, familia guztiak bisitatzen ditu laguntza-taldeak; hortik aurrera, familia bakoitzaren premia eta egoeraren arabera, bisita ugariago edo gutxiago egingo dituzte.
3. Telefonoa eta posta elektronikoa. Telefono-zenbaki baten bidez, laguntza-taldeari deitu eta zeinahi kontsulta egin diezaioke familiak, edo orientabideren bat eskatu, edo iradokizunen bat egin. Posta elektronikoko helbide batekin ere jar daitezke laguntza-taldearekin harremanetan familiak. Hona hemen helbidea: izeba@izeba.org.
4. Interneteko eremu bat. Abegiko familiek eta laguntza-taldeak badute berariazko eremu bat esperientziak, zalantzak, kontsultak, kritikak, iradokizunak edo ekarpenak bidaltzeko elkarri. Hona hemen helbidea: www.facebook.com/izebaproiektua.
5. Laguntza ekonomikoa. Izeba Proiektuan parte hartzen duten familiek diru-laguntza bat jasoko dute hilerio Gipuzkoako Foru Aldunditik, beren ekarpena eta eragiten dizkien gastuak apur bat bederen estaltzeko.
6. Ikastaroak eta argitalpenak. Baketik-ek aukera ematen die Izeba Proiektuko abegiko familia guztiei plazaratzen dituen argitalpenak doan jasotzeko eta antolatzen dituen zenbait trebakuntza-ikastaroetan doan parte hartzeko.
7. Buletinak. Hainbatean behin, buletin bat bidaliko zaie abegiko familiei, zenbait albiste, bizipen, iradokizun eta hausnarketarekin, guztiak ere laguntza-familien edo abegiko osaba-izeben jarduerarekin lotuak.
8. Tokiko erakundeekiko lankidetzak. Laguntza-talde espezializatuak eta Baketik-ek tokiko erakundeekin harremanetan jarriko dituzte pertsona adingabe horien harremanak sustatzeko prest dauden familiak, eta haienzako hurbileko harreman sozialak, adiskideak eta interes edo zaletasunak aurkitzen lagunduko diete.
9. Familien eta talde teknikoaren arteko taldeko saioak eta trebakuntza-jardunaldiak. Baketik-ek topaketak antolatzen ditu, hainbatean behin, abegiko familientzat. Topaketa horietan, Izeba Proiektuarekin lotutako trebakuntza jasotzeaz gain, beren iritziak eta esperientziak trukatzeko aukera dute familiek.
10. Sentsibilizazio-kanpainak. Abegiko osaba-izeben gizarteratze-lanari laguntzarren, urtean behin —gutxienik— sentsibilizazio-kanpaina bat antolatuko da herri batean edo probintzia osoan. Neska-mutiko horienganako giza sentsibilitatea sustatzea dute helburu kanpainak, hots, gure seme-alabak izan zitezkeela gogoraraztea herritarrei.

Halaber, beste zenbait jarduera bultzatuko dira pertsona adingabe tutelatuen bizi kalitatea hobetzen laguntzeko. Baketik-ek, adibidez, komunikabideekin eta gizarte zibileko elkarteekin lan egingo du, arazo honen inguruan sinergiak sortzen saiatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, berriz, beste zenbait programa bultzatuko ditu, ikuspegi askotatik bultzatu ere, babesik gabeko pertsona adingabeei nola lagundu aholkatzeko.

3. Jarraibideak

Atal honetan, abegiko osaba-izeba eginkizunari ahalik eta ondoen ekiteko zenbait arau edo jarraibide aipatuko ditugu. Komeni da aintzat hartzea gomendio hauek, lagungarri izan baitaitezke abegiko familien eta babestu nahi diren adin txikikoen arteko harremana emankorra izan dadin.

1. Zer garen eta zer ez garen ongi jakitea. Ez gara neska-mutiko horien guraso biologikoak edo adopziozkoak; beren bizimodua hobetzen lagundu nahi diegun familia edo gizon-emakumeak gara. Osaba-izebaren rola gureganatuko dugu, gure lana hobeto egiteko.

2. Zer egin dezakegun, eta zer ez, ohartzea. Abegiko familion erantzukizuna ez da adingabe horiek «salbatzea» edo «berreztea». Hala nahi izanda ere, ezin dugu haien bizimodua goitik behera konpondu. Gure eginkizuna da beraien garapen pertsonalean laguntzea, hau da, hobeto bizi eta elkarbizi daitezen bidea egitea.

3. Jakitea afektibitatearen eta harremanen bidez laguntzen diegula. Bi eratara laguntzen diegu adingabeei: barnerantz, afektibitatea sortzen, eskaintzen eta jasotzen duen harremana eraikiz; eta kanporantz, hurbileko harreman sozialak, adiskideak, interes eta zaletasun erkideak eskuratzeko bidea erraztuz.

4. Afektibitate-giroa sortzea: oinarritzko printzipioak eta irizpideak. Tutoretzapean dauden adingabeekin afektibitate-eremu bat sortzeko, eraikitzeko eta iraunarazteko, elementu hauek —gutxienez— behar ditugu: (1) jarrera positiboa, (2) jarraitutasuna eta erregularitatea, (3) komunikazioa eta enpatia, (4) laguntza eta kontrola, eta (5) maitasuna eta mugak. Horrek guztiak, berriz, konfiantza (6) oinarritutako harremana ekar dezake.

4.1. Afektibitatea da, lehenik eta behin, ikuspegi positiboa, ulerbera eta aurreiritzirik gabea izatea. Ikuspegi hori izate hutsak sekulako ahalmena ematen digu aukerak sortzeko, adingabeak garatzen laguntzeko, hezteko edo aldatzeko. Osaba-izeben helburuetako bat izan behar du ikuspegi horri eustea laguntza-garai osoan.

4.2. Afektibitatea jarraitutasuna eta erregularitatea da, edozer gertatzen dela ere, hor egotea, astean behin gutxienik. Ez da egun bateko lana; ez pentsa maitasuna eta konfiantza barra-barra etorriko zaizkigunik lehen momentutik. Pazientziaz landu behar dira, urratsez urrats, prozesu-ikuspegiarekin, pixkanaka.

A. Adibide bat jartzearren, astean behin gure familiarekin bazkaltzera edo ibilaldi bat egitera gonbidatu adingabea; hainbatean behin telefonoz deitu, zer moduz dabilen jakiteko. Ez da komeni gure etxean hark lo egiteko leku berezirik jartzea. Prozesu baten emaitza behar du izan pauso horrek, eta, aurretik, laguntza-talde espezializatuari eta harrera-lekuari galdetu behar diegu.

4.3. Afektibitatea komunikazioa eta enpatia da. Ideia bakar batekin laburbil daitezke komunikazioa eta enpatia: epaitu gabe entzun. Gertakariak epai ditzakegu, baina ez pertsonak. Pertsonak epaitzen baditugu, ezin dugu entzun, ezin dugu elkarriketarik izan, ezin gara elkarrekin komunikatu. Dagokigun kasuan, hau dakarte berekin komunikazioak eta entzuteak: neska-mutiko hauen historiaz sakonki arduratzea, eta geurea haiei azaltzea.

B. Zehazki, haien familiaz, eskolaz, lagunez, herriaz... galdetu, adibidez; saiatu haien egoera ulertzen, aurreiritzirik gabe; saiatu haien historia geure familiaren historia bezala sentitzen, eta gure historia eta bizitza ere azaldu haiei, betiere pixkanaka, pausoz pauso.

4.4. Afektibitatea laguntza eta kontrola da. Are hobeak izango dira komunikazioa eta enpatia gudan euskarri fidagarri eta erregularra ikusten badute. Estutu gabe lagundu behar diegu, baina lañotasunean erori gabe. Gogoan izan nerabezaroaren muga egon daitezkeela, hau da, adin «zailean». Horregatik, frenoa jartzea ere laguntzea da. Kontrola, frenoa ez da ez agintekeria ez debekua; laguntzea, orientatzea, negoziatzea eta, batzuetan, ezetz esatea da.

C. Zehazki, arazo pertsonalen bat (edozein) konpontzen lagundu ahal diegu, hizkuntza ikasten, ikasketetan, lanbidea edo ikasketak hautatzen; lagundu ahal diegu, halaber, gure aholku eta iritziekin (aldekoak edo ez-aldekoak), eta beren prozesu pertsonaletan. Alabaina, haien erritmoa eta autonomia kontuan izan behar ditugu, estutu gabe, paternalismoan eta lañotasunean erori gabe. Kontrola, frenoa jartzea etxean bakarrik ez uztea ere bada —hasieran—, etxeko giltzarik ez ematea, ezer tentagarri eskura ez uztea. Zentzua erabili behar dugu prozesu osoan.

4.5. Afektibitatea maitasuna da, eta mugak. Maitasuna bestea bestetzat garatzea da (Nedoncelle). Sentimendu hori transmititzeko, aintzatespena, onespina, balioespina, pertsona adingabe horiekiko sentitzen duguna azaldu behar dugu. Baina maitasuna ez da mugarik gabeko permisibitatea; batzuetan, gatazkak eta zailtasunak sortzen dira, eta aurre egin behar zaie.

D. Zehazki, hitzaren bidez adierazi behar diegu gure maitasuna eta afektua iloba berri horiei, begiradarekin, fereka edo besarkada batekin, keinu edo jarrera jakin batekin. Baina afektibitatea muga ere badenez, ezetz esaten ere jakin behar dugu ezetz esatea tokatzen denean, haien gurasoak ez garen arren. Hori gertatzen bada, ez diogu haien osaba-izeba izateari uzten, ez diogu haiek maitatzeari uzten. Hor jarraitzen dugu, baina garbi adieraziz ez gatozela bat haien jokabidearekin, eta ondorioak haiekin negoziatu behar ditugula. Ez baldin badakigu nola jardun zailtasunen edo gatazkaren bat sortzean, laguntza-talde espezializatuari galdetu.

4.6. Afektibitatea, azkenik, konfiantza eta esker ona da. Hazten ari den afektibitate-eremu batek elkarrenganako konfiantza eta esker oneko harremana dakar. Afektibitate horrek inongo ordainik gabe ematea eta konfiantza izatea eskatzen du, apaltasunez jasotzeko prest egotea. Pertsona adingabeen eta abegiko osaba-izeben arteko harremanak ez du materiala edo ekonomikoa izan behar; konfiantza eta esker ona eraikitzeke, afektibitatea behar da, betiere jarraitutasuna eta erregularitatea, komunikazioa eta enpatia, laguntza eta kontrola, maitasuna eta mugak oinarri direla.

E. Zehazki, afektibitate-eremu horri eusteko behar den guztia eman behar diegu neska-mutiko horiei, baina ez da sari materialetan oinarritu behar. Ez diegu dirurik eman behar, ezta oparirik erosi ere, egoera jakin batzuetan izan ezik (urtebetetze-eguna, festak eta antzekoak). Bestalde, konfiantza eta esker ona handitu ahala, etxean egonaldi laburrak egitera gonbida dezake pertsona adingabea familiak: gau batean etxean lo egitera, asteburu bat pasatzera, edo opor-egun batzuk...

5. Harreman-giroa nola sortu: iradokizun batzuk. Izeba Proiektuaren filosofian, familia giroko afektibitate-lotura sortzea bezain garrantzitsua da abegiko familiei pertsona adingabeei laguntzea harreman sozial berriak jorratzen familiaren ingurunean edo neska-mutikoak bizi diren herrian. Hona hemen horretarako irizpide batzuk:

F. Pertsona adingabeen zaletasunekiko interesa adierazi, eta herrian egiten diren kirol- edo aisialdi-jardueretan parte hartzera bultzatu, bere gustukoetan betiere.

G. Laguntza-familiaren inguruan murgiltzera animatu; horretarako, hainbat ekitalditara eramanez, edo haietan parte hartuz.

H. Geure familian adin bertsuko neska-mutikoren bat baldin badago, bien arteko harremana errazten saiatzea komenigarria izan daiteke, tentuz betiere. Zalantzarik gabe, nerabe adingabe edo haur bat da adin bereko beste batentzako integrazio-eragile egokiena. Baina naturaltasunez egin behar da, egoerarik behartu gabe eta sor daitezkeen zailtasunak kontuan hartuz.

I. Bere adin bereko beste gazte batzuekin, lagunene seme-alabekin... harremanetan jartzen ere saia gaitezke, tentuz betiere, edo horretarako sortzen den edozein aukeraz baliatuz.

Azken oharra: gomendio eta aholku hauek gorabehera, geure aldetik dugun onena eman arren, ez dugu ahortzi behar mugatuak garela, eginkizun zaila eta konplexua dugula, eta, azken batean, prest egon behar dugula aldian behingo porrotak jasateko, edo, agian, behin betikoak. Tentaziorik txarrena eta asmorik okerrera haxe dugu: haur zein gaztetxo horien «salbatzaileak» garela uste izatea, haien bizitzek jabetu eta «zuzendu» egin ditzakegula pentsatzea. Akats larria egingo dugu horrela jardunez gero.

Lehendik ere esan dugunez, giro egokia sortzea da egin dezakegun bakarra; ezin ditugu emaitzak kontrolatu. Vaclav Havelek zioenez, «itxaropena ez da dena ondo aterako dela ziur egotea, baizik eta egiten dugunak zentzurik baduela jakitea, emaitzez arduratu gabe». Badu zentzurik Izeba Proiektuak? Badu zentzurik pertsona adingabe tutelatutako bati laguntzen saiatzeak? Bai, badu. Emaitzak? Ezin jakin. Dakigun gauza bakarra da gauzak hobetzen saiatzeko bidea ireki dezakegula, eta pozik egotekoa dela hori egiteko aukera egokitu izana.